

A. ARRINDA ALBISU  
(Anes Lazkauko)

**"SEMENO DE LAZKANO"**

(ANAI-ARTEKO GORROTO)

(XIV<sup>ga</sup> mendean)

A. ARRINDA ALBISU  
(Añes Lazkauko)

# **“SEMENO DE LAZKANO”**

(ANAI-ARTEKO GORROTO)

(XIV<sup>gn</sup> Mendean)

## ARGIBIDEA

0)	Itz-Aurrea .....	Pag.	7
1)	Ataka .....	"	21
2)	Etxe Barrutik .....	"	29
3)	Albitxu Baserria .....	"	34
4)	Naparren Berriak .....	"	57
5)	Tiebasko Gaztelua .....	"	64
6)	Pakearen Bideak .....	"	92
7)	Lazkanoko Fortaleza .....	"	96
8)	Gorroto Arteko Maitasuna .....	"	111
9)	Qd. Navarri Expugnaverant .....	"	123
10)	Akabera .....	"	129

## ITZ-AURREA

SEME.NO-ren *historio a« euskald'unon historia da.*  
*Ordukoa &ezela gaurkoa ere.*

*Egundokoa.*

*Euskaldunok alkarren arteke burrukarako egi-  
ñak ote...?*

Lana argitaratzeko aurr\*etik, kezka batzuek *ditur*  
buruan.

*Ze jantziekin atera kalera....?*

*Zer ortografi erabilli...?*

*.Batzuek ezkerretik dij'oaz, besfeak eskubitik. Aiek  
gazteak dirala, zenbait zahar eurakin dituztela,^ auek  
zarrek direla zenbait gazteriak...*

Batak besterari, txistu.

\* \* \*

—Bioloj'i *aldetik gurea da garahipena...*, —batek.

—Bioloji aldetik zuek ere zartuko zerate—,  
besteak.

—Gu gera *euskeraren zaindariafc...* Gu agertu *geran artean ez du nihork ezer egiñL. U'tsetik asi nahi degfu...*

—U'tsetik asi **baziñaten** etzenduten *euskera zanik ere jakingo... Zuen aurretik ere izan dira euskararen alde lan egindakoak...*

—*Haiek denak baiño obeak dituzu gure gazteak...*

—Butafum.**eir0** ugari zuefc alkarri...

—Gure aurretikoak oker ibilli dira...

—Ta, Axular...

—Maite dugu AXular.

—Hachekikoa dalako...?

—*Hacheak Euskal-Herriak darabilzki... Euskaldun ahotik irten ohi dute...*

—*Euskaldun-prantzesen aotik. Prantzez izkeratik artutako doñUa...? Ori...?'* Ta "erge" soñua ere sartuko al *degu...? Ta, euskaldun guziai ezarriko diozufe prantzez-kutsuzko uztarri.*

—Euskaltzaindiaren *agindua da.'*

—*Errekom.endazioa. Aginduak lenago em.anda zitan... Errefcom.enzaioa: burruka ta naste-borraste artean emandako errekomendazioa...*

—Zuek *dialekto motroilloh^n ari zer8te,^ bitartean Euskera ilko da.*

—*Euskera dialektoeri ezkerak bizi da erri xeearen aotan... Dialektoiiik sortu da euskeraren aberastasuna...*

—*Baita argaltasuna ere... Heurafc ondatzen dute euskeraren batasuna.*

—*Batasuna zaindu bear da,^ dialektoak ere bai. Dialekto edo euskalki batean lanean ari danari, zergatik bizia ukatu...?*

Gerorak arrazoi zeñneri emanen dion, nihork ez daki... Nola auzia erabakiko du ondoren etorriko dan gazteriak...?

Zeñek daki?

Jo ta aid'ean hache guziak, orbelak bezela, botatzea ere gerta leike...

Juan Ramon Jimenez, "premio Nobel de literatura" irabazitako gizonak, bere idazlanetan, ortografia simplifikatzen du: g ta j erderaz ondo erabiltzea zaila da, baiña berak euskeraz egiten deguna **egiten** du erderaz: sonidu gogoira danean beti "j" kin idazten du; biguiña bada, "g"-refcin... Erderatik hache kentzeko eztabaida ez da gaurkoa Espaiñian... Oiek orrela dirala, jendea erreztasun bidean ekin nai dionean, gu bid'e estua artzeko **prest** gaude...

Bide ori askoentzako gogoko ez izetea etzait bat ere arritzen.

\* \* \*

Emen nago ni, batasuna dala ta ezjala, nundik jo asma **eziñik**.

Oto ta Pototori beñ gertafutdkoa gogorateen zait:

Erriko goikokalean dendak ugaritu ziran ezkereskubi. Eskubitik bazoaz, ezkerrekoak txistu botako dizute aurpegira; ezkerretik juan ezker, eskubikoak txistu. Txistutik etzera libratuko.

Gure Oto, pakezale izan ta erdi-erditik ekitea erabafci du, ez inñorekin asarratzeko ta danekikoena **egite** arren.

—I tontoa aiz, esan zion **Pototok**.

—Tontoa...? Zergatik?

Abiatu da kale-erditik, aldamenetara begiratze-  
fce, ez dezatela eskubikoak ezkerren alde dagoenik;  
ezta aldrebes ere.

Kalean sartu orduko asi ziran asi, ezfer-esku-  
bi, txistuka Oto gizon prestuari. Beste kale ertzetik  
agertu zanean, etzuan bere amak ere esagutuko txis-  
tuaren-txistuz... Orra pakearen aldeko vmaitz ta frui-  
tudk.

Pototoren algarak...!

—Tonto, inuxente, iñuzu ezpadakoa...! Erditik  
juango aiz ba...!

—Emango al ditu Euskaltzaindiak norma berri  
oiek noiz baiten...

—Emanak ditu, gizona. Nungo munduan bizi  
aiz i...?

—Bai?

—Bai, gizona, Arantzazuko zean... Ara emen bi-  
garren atalean esatendana:

'2) H-ren hauzian, izan diren iritziafc entzun  
ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: ale-  
gia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak  
letra ori bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean  
•erabiltzea.

Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen  
saioak ez direla ongi ikusiak izango.'

Konprenitzen al duk...?

—Bai, bai... Nik euskera ta Euskalerrria asko  
maite ditut.

—Ez dufc seiñale aundirik...

—Zergafifc ez?

—Hacherik ez duk bat ere erabiltzen.

—Ori besterik ez bada... Ta hache bategaitik  
ainbeste burruka ta ixkanbilla...!

—Geiegi bai, baiña Euskaltzaindiaren 'erreko-  
mendazioa betetzeko ez ditut geiegi jarri: bokal arte  
bdkoitzean hache bat... Ta nifc euskaltzaleen aurre-  
puntan ibilli nai dut... Orretarako ez ditut aski ja-  
rri...

—Zuhurtasuna palta zak iri, zuhurtasuna. Ez  
duk pitorik konprenitzen. Tonto-lapiko...

—Ni tonto-lapiko naizela bazekiat ta ori agindu  
dutenak gizon prestu ta jakintsuak direla, ere bai...  
Ez diat 'ezer ententitzen; baiña nik, konprendituko  
banu ez litzake gauza ori jakintsuena izango... Join-  
txo, jointxo...! Au defc misterio latza, au...

Oto gizarajoa lehen bestean gelditu zan.

\* \* \*

Orrenbeste edozeiñeri gerta lezaioke.

Euskaldunok, geienean, nortasuna, personalida-  
dea, saltzeko aiña daukagu: denok nai maixu, ira-  
kasle, patroi, etxeko-jaun izan... Menpekotasunik  
etzaigu gogoko: naiago arratoi-buru leoi-bustan  
baiño...

Norbere etxearen jaun da jabe izaten oituak.

\* \* \*

Euskera koba-zuloetan jaiio, bordetan azi ta ba-  
serrian gizon-emakume gertatu zan: oiefc izan dira,  
oraiñ arte beintzat, euskeraren Unibersidade baka-  
rrak... Beste eskolarik izan du euskaldunak...? Iza-  
nen al ditugu lenbailen orainarte izan ez ditugunak...

Baserrira ez degula joan beharrik...?

Zertara dan.



*Baserria mespreziatzea euskera gaietan astafceri galanta litzake ta noiz beinka bada ere, lrvesprezio orren usaia sentitzen da euskaldunon artean. Ta euskeraren kontrako pekatua izanen litzake mesprezio ori.*

*Nere lendabiziko bederatzi urteak Barakaldoko kaleetan pasa nituen, ta gero Lazkanon bizi arren, Barakaldoko eragozpena m'enperatzeak gaur ere lanak ematen dizkit... Sarritan "erderakazoak" botatzen ditut galantak; ori, bai, euskerazko itz puru-puruekin egosita...*

*Latiña ta latiñetik sortutako romanzeak euskeraren tankera ta pentsakerakin ezer gutxi daukate alkarren artekorik. Lekeitio, gerratean, gertatutakoa esango dizut argibide bezela.*

*Bombardeoko kanpaia asten zanian alarma ematen, jendeak, bakoitzak alzuari medioz ta alzuari tofcira, alde egiten zuan erritik kanpora. Nere osaba Jose-Pelixek, kanpaia asi orduko, artu bere ama Pillipa ta beronen lagun Agustiña Amorotoko, ta koba-zulo ingurura eramaten zituan, auto kaxkar batean.*

*Bi andre auek, Pillipa ta Agustina, urtetsuak ere bai ba ziran, baiña oso koipetsuak batez ere ta koba-zulora sartzeko gogo gutxi. Automobil barruan gelditzen ziran.*

*Beiñ batean eldu zaizkie gudari erdaldun batzuek:*

*—Señoras, que hacen ustedes aqui...?*

*Erdera oso gutxi zekiten bi andre auek. Nere amana Pillipa ixilifc. Onela diotza Agustiñak:*

*—Berba eixu, Pillipa.*

*Pillipak barbarik bez.*

*Orregafik esan degu zenbait euskal-laneri susmoa artseko, erderaz jakin beharrezkoa dala, bestela eskribu oien mamirik ez dezula zureganatuko.*

*Iñundik ere.*

*\* \* \**

*Orra interesdun benetako gauza euskerari buruz. Hacheren iskanbilla baiño garrantzi aundiagokoa. Hackeak gastatu dituan tinta-potzuak, arazo au argitzen gastaiu balira...!*

*Euskeraren estilo bereizia (pentzakera bereziak ematen duena) galtzen ba degu, galduko degu, baifa ere, euskeraren mamia ta barruko bizia... Azala besterik etzaigu geldituko... Tutankameren momia ta euskera ori antzekoak...*

*Euskera akabatu ta Euskeranto sort-arazi: orra gure lan guzien akabera.*

*Bai esanen didazu euskera tresna bat besterik ez dela. Giza-arteko artu-emanetarako behardegun tresna bat...*

*Ala bada, 'euskera galtzeak ez du ajolik bat ere. Guazen guziok ingles, ruso edo chino ikastera. Obe genduke esperanto ifcasi.*

*Ta fcito.*

*Zertarako burrukan ibilli...? Mundu guziakin masa bakar bat <egin.*

*Orra benetako batasuna.*

*Aurrerago segitzen ba dezu, liburu on'etan gauza itsusiak irakurriko dituzu.*

## I

### ATAKA

—Reketek Ataunen daudela...! Reketek Ataunen daudela...!

—Ta, reketek zer die...?

—Zea...! Txapelgorrik...!

—Mikeletek, ere, txapelgorrik dituk...

—Baña, amama, reketek ez die mikeletek... Biak ez die bat... Aitzen aldiazu...?

—Aitu, bai, ume; entenditu ez, ordea... Zer die zorioneko erreketek oiek?

—CarlosVII-n soldaduk...

—Ene...! Oraindik, e, ba diraute...? Aiek giza-  
-seme ederrak zien...

—Zu bai ederra orduan, amama...

—Ixo...! Mingaiñ-luze lotzagabe ori... Ta, soldadu aiek oraindik bizi al dira...?

—Aien semeen semeak dira...

—Ta, nundik datoz...?

Ba ziran iru egun gerra asita zegoala. Fabrikak itxi zituzten ta jendea kalerik-kale zebillen denbora pasa.

Gerra edo pezta, oraindik ez giñun antzik ematen ura zertzanik.

Jai-giro orretan pasa giñuzten ia zortzi egunak.

Santigo bezperan, Atauna bizikletan zijoan gastetxo batek ekarri zigun albistea:

—Erreketek Ataungo kaletan daude,..!

\* \* \*

Bigaramonian, zubiondoko Luis Gariñ-en etxebodega barruan jendemordoa bildu zan: iru umetxo beren ameen magaletan, bi neskazar, iru amona, sei mutil-koskor, lau neskatill, etxeko jauna ta itsasoko kapitan zahar bat.

Bodega arrek leio txiki estu bat zeukan, bertatik zubia ikusten zana, ibai gañean. Leio artatik begira, kapitana (barkuan ba lijoa bezela). Bada ezpada, ere, berekin zituzten garrafoi ardoa ta lau librako dozena bat ogi...

Ume-negarra ta bildurra arnasean...

—Zuk ez al dezu bildurrik, kapitana...?

—Itsasoan egun gaizto asko pasa izan ditut, ta au baño txarragoak makiña bat, bai...

—Tirorik sartuko ote da leio txiki ortatik...?

—Zeñek daki...?

—Bistaratzen diranean sartu bearko dezu zure buru ori...

—Or datoz...! Tirorik botazeke...! Baña urdiñez jantzita datoz...! Ez alziran erreketiak atzo Atauna etorritakoak...?

Lazkauko jauregia esaguna genduan antxiñatik. Sar gaitezen ate aunditik aurrera. Barruan, atari aundi zabala ta bertan, bi zaldi-gurdi edo karroza eder ederrenetakoak, Espainiko erregeek erabillitakoak...

Ezkerretara, Pio palazio-zaiñaren etxe-bizitza.

Ataritik aurrera pasa ta, lehenago aitatutako patioa bere uren-pozadera erdian duela Inguru guzian gela ta kuarto galantak... Beoietan ba zan aberastasunik...! Zenbat pintura-kuadro eder...! Zenbat ontzi zahar ta polit...! Zenbat mai, eserleku, oi, arramarrio, kutxa antxiña-antxiñakoak...!

Ta kutxa barruetan, zenbat pitxi xarmant... eta zenbat, sitzak jandako paper ta liburu...!

Etxe artako seme Borja Arteaga, aurrera joanik zan, ta laister Lemonako aitzetan eriotzaren mendeko gelditu zan sekulako...

Lazkauko palazioa elizakin inguraturik dago: ezkerretara, parrokia; eskubira, Beditinoen eliza; aurrean, Zisterziense mojen etxea... Irurak dira Lazkauko Jaunen aurrekoek egiñak edo egiten lagundutakoak, beintzat...

Orregaitik, ain zuzen, ere, Borjaren gorputz illa Beditinotarren etxera ekarri zuten, bere aurrekoen ingumarira...

\* \* \*

Pozik nebillen egun artan liburu ta paper zulatuen artean; astia, ere, ba nuen da... Zenbat gauza jakingarri ote daude Euskalerriko zenbait etxe ta jauregi zaharretan izkutatu ta gordeta, iñontzako probetxurik gabe...! Artxibo oiek aztertzea ta aztertuta-

\* \* \*

Lazkauko Jaunen jauregia, erreka ondoan, toki lau ta erosoan jasota dago. Ondo ta patxada onean bizi izateko egiña, ez gerraterako...

Lazkauko Jaunek beren gaztelua Beistiñ baserriko soro barrenean, "fortaleza" orren inguruan, kono antzeko tontor gañean, zeukatela pentsatu izan det askotan... Soro oiek eurenak ziran; soro oien izena "fortaleza"; soro oien barrena toki aukerakoa da gaztelu batentzako... Bertatik domina ta menperatzen da Lazkauko ballara guzia, ta ez ballara bakarrik, baita Ataun, Segura ta Beasain aldeko sarrera ta ate guziak, ere...

Ikusmirarako, zoragarri; atalaiarako, egokiagorik eziñ; aurretik defenditzen erreza; atzetik Beistiñ soro-barreneko "fortaleza"...

Naparroako "Camara de Conptos" artxibuetan ba daude naparrak Lazkaukoekin izandako burruken gastuen kontuak zeatz asko izendatuak...

Ze kostatu zan...

Zenbat zaldi ta mando erabilli zituzten...

Gure historia onen asieratik amasei urte pasata gero (1952 gn. urtean gutxi gora-bera) Jesus Larrañaga, Lazkauko semeak, sastrakaz betetako mendi tontor ura erosi zuan... Zikiña kendu zitzaionean, menditxo arren gallurra borobilla agertu zan, konpasakin eginda ba-leo bezela. Mendiak kono baten itxura du ta bere, gaña, burdi-kurpil edo errueda batena... Gallur borobilletik metro batzura, mendi guzia zanga aundi batekin ingaratua zegon, burrukarako gazteluak izan oi duten antzera...

Gaur tontor orren gañean etxea dago jasota, bere pelota-leku, pizina ta guzi...

**ETXE BARRUTIK**

Borja Arteaga-ren illetak egin-berri ziran Aita Beneditarren ardurapean: Meza aurretik Nocturnoak, eta Meza ondoren, Erresponsoa... Sepultura gañean argizaria, ogia ta txampon batzuek ofrendarako...

Gau artan, paper artean zirri-borro aiek ezin argiturik, begiak, ere, erreta nituan... Lo artu banuen edo ez, zihur ez dakit...

Semeno-ren arrasto billa nebillen eten gabea, ta, une artan, kanpaiak gaueko amabiak jotzen to-rean: sorgiñ ta anima erratu guzien askatasunaren ordua...

Sfs sfs **H**

Kanpaia ixildu zan.

Bizkarretik behera, ozkiri baten zarradak astindu nindun: uraren pozadera ondotik Semeno zetorren neregana, leiotik ateratzen zan errañuareñ argitara...

—Naparroa ta Aragoi, Katalunia ta Kastilla, Gipuzkoa ta Bizkaia, Leon ta Galizia... denak bat egin zuten aspaldian...

—Ta, moroak...?

—Oiek bota zituzten Espaiñitik kanpora...

—Baña, naparrak beti izan dira gure arerio ta etsai, ta oiek gure etxean sartzerik ez dizut sekula parkatuko...!

—Konprenitu zazu Espaiñiaren onerako egin degula...

—Nik ez nuen Espaiñirik esagutu. Hispania guziaz arrotzez ta moroz betea zegoan. Naparro, Aragoi ta Arabako bealdeko lurak bere mendeko zituzten... Baina, gure mendietan etziran sartu. Gure lurraldeetatik behera, bultzaka bota dituguz Kastillan zehar. Kristau lurralde oiek guk sortuak dituzu: gure odolez nahastu dituguz erri berri bat sort-arazteko... Etengabeko burruka luzeak...! Titia utzi orduko jaritzen zizkiguten gezia ta ezpata eskuartean... Jaio orduko probatzen giñuzten zaldi-gañak... Burruka luze aspergarri oiek ba zituzten beren pake-uneak, ere... Ta, tarte oietan zer egiten genduan bai al dakizu...?

—Ez dakit...

—Geuron arteko burrukak egiteko aprobetxatu.

—Zuen artekoak...?

—Bai, gure artekoak, gu ta gure etsaien artekoak...

—Ta, zein ziran zuen etsai oiek...?

—Etsaia beti izaten da auzokoa... Ta gure auzoan naparrak bizi dira... Ta gure auzoa, Etxarri-Aranaz ta here inguruak dira...



etzion inundik antzik ematen. Borjak ere ez berari, baiña berak, emango zion aurrekoen berri. Borja besondotik artu ta Beistingo soro barreneko forta-  
lezara darama. Agertuko zion ondo euren aurrekoen  
ixtorioa...

zuan, etxeko ate ta leiatillak orbel igartuak bezela astinduz... Aizeakin batera euria ta kaskabarra...

Gau illun bildurgarria.

Otsoak beurak ere, etzuten irtengo beren zulo illunetik.

Sorgiñ ta anima-erratientzako giro egokia...

Albitxutik Intxaustiko iturrira ta andik Erreka Beltzetik Igaratzaraño juateko etziran iru ordurik behar... ta Igaratzan dago Naparroako muga.

Igaratzatik irtetzen dute zenbait bide, naiz Arakilgo ballara guzirako, naiz Betelu ta Lekunberrirakoak, ere.

Bizkarretik bizkarrera juaten ba-gera sarkalderuntz, Aralar mendian zehar, Irurzunera elduko gera ta andik, lau pausotan daukagu Panplona, euskaldunen Iruña... Bitartean larrabei, moxal ta txerriek ikusiko dituzu aberats baso ta oianetan aritz ta pago-ezkurra oparo jaten... Lapurretarako aukera oberik...! Pago lerdanak illuntzen dituzte basoak ta eguzki galdatan, ere, oianak illunpe atsegiñean lo... Udazkeneko orri-erorte ta negu gorriko elurteak aberasten dute arkaitz-arteke lur melar ura... Arkaitz-arte aberatsa da Aralarkoa... Arren inguruan burrukak izatea etzan oso arritzeko.

\* \* \*

Gau illuna zala gau ura esanda daukagu.

Euria ta kaskabarra. Biak, geroago etorriko ziran elurren enbajadore... Artzaiak bera jetxita edo jeisteko zebiltzen, goietako gallurrak giroa zabartuta zeukatelako; otzak elurra izan oi du lagun gure medietan, Aralarren beintzat.

\* \* \*

Ate-atzean, akuluak eta lurrean, uztarria. Ta, gero ezkerretara beste ate bat: sukaldeko atea. Sukaldearen parean, etxea aÑe luze, ikullua. Ikullu ta sukaldearen bitartean egongo dira nekazari erremientak: sega ta sega-potoa, itaiak, lastoa mozteko epaia, laia, atxurak, aizkora ta abar... Oien ondoan ganaduanak... Goian, lenbiziko solaiduan, gordetzen dira laboreak: gari, babarrun ta ganuari emateko beste aleak...

Ezkerreko atetik sartuta sukaldea dagoela esan degu. Aurreko orman, sutokia. Suari, zabaldu gabe, eusteko izaten dira su-burniak eta, barruan, eltzeari eusteko, eltze-burniak. Orma zaharreauspoa suari aize emateko, talaburnia, talomantenua, talo-ola, burrunzia, sartagiak eta krisallua. Suaren atzean, su-atzeko burnia erdian talaburnia eukitzeko txapaldaxo batekin, egon oi da. Tximiñiko kanpai inguruan pertz oria ta pertzotia, tupiñak, ahnaiza ta almaizeskua kandeleruekin. Sukaldeko paretatik duela atakea, etxe kanpoan labea ta labe-atakaren ondoan labe-endaia labetik ogiak ateratzeko ta satar-endaia labeko sorua garbitzeko.

Eskubitako paretan dago orromaia; paretan zintzikirik iriñaulkia ta baia iriña pasatzeko orromaien barruan. Orrotu ta gero, orromaien sorua garbitzeko burniari matarrazkia deitzen diote.

Beste paretan dago zizallua, apaltxoarekiko armario txiki bat, eta apaltxo oietan egurrezko kutxara ta sardeak, egurrezko txaliakin, eguerdian bertatik egozkaria jateko. Solairutik zintzilika kaiku ta esne-pertza; baita zezina ta urdai zati aundi bat...

Suaren inguruan, aulkiak.

Goazen lo-gelara.

—Bei gorritxuna... Irriparrez erantzun dio txikiñak.

—Orrek etzian balio...!

—Ori askotan aitu degu...!

—Ori...

Dana zan protestatzea ta txikiñaren borondateari amor ez eman naia.

—Ixo, denok! Gure poxpolin txiki onek eskatu diguna emango dizutet.

Ori esaterakin batera bere magalean artu zuan umetxoa. Begi aietan bere arpegia ikustea gogoko zitzaion aitari, amaren begiak bai zitun semeak... Bi urte dira umezurtz gelditu zirala. Ezkerrak amama bizi zutela oraindik...

—Ze ipui nai du gure etxeko poxpoliñak...?

—Bei gorritxuna...

—Asiko naiz, ba. Beiñ Atxubitetxeko alabea bei-zai omen zegoan...

—Nun, aitatzxo?

—Aralarren. Eta gero, bei-paltan etorri omentzan etxera. Birao egin zion uesamak: etzala geiago etxean sartuko beik gabe...

—Ta, uesamak gaiztoak al dira? Zion Mikelek.

—Au, beintzat alaxe zan...

—Ta, zuk uesamarik ekarriko al diguzu etxera? Matñ-ek aitari.

—Ao ixilik, berritxu ori...! Bestela, ez dizutek ipuirik esango...

—Bai, aitatzxo, esaiguzu ipuitxo ori...! Begi-bel-txak.

—Bai, umetxo, esango dizut, ba. Atxubitetxeko alabea gero, illunarrean, bei billa juan zan ta billatu

—Ona? Batzuetan, bai; beste batzuetan, ez. Leize-zulotikugarra dariola ateratzen danean, ez da gozo-gozoa egoten...

—Zer egiten du, ba, orduan?

—Zera... ekaitzak sortu, trumoia jo, tximista ta arria bota goitik behera, gari guziak ondatu...

—Garia ona da, aitatxo. Egia da Jentillak asmatutakoa dala garia?

Jentillak asmatu ta Kristauek arrapatu Jentillai...

—Nola arrapatu zioten gari ori?

—Beiñ batean Ataungo koba baten Jentillek bizi omen ziran. An inguru aietako lurrek erabillita, sekulako gariak biltzen omen zituzten. Beraldeko lurretan Kristauek bizi omen ziran da artean ez omentzegoen garirik ereiten, gal-azirik ez da...

—Ta, zergatik etzuten gal-azirik?

—Argatik. Ta, beiñ Sanmartintxiki, bota aundi batzuk jantzita, igo omen zan Jentillen kobara. Ta, ango gari-pilla ikusita, zeñek saltoka ariñoago pasatu, Jentillekin apostu egin zun. Baita Jentillek bere al-diko erreztasunez pasa omen zuten.

—Ta, Sanmartintxikik?

—Sanmartintxiki gari-pillaren erdian erori omen zan; baiña, baita bota aundi aiek gal-alez bete, ere... Kristauek ez emen zekien garie noiz eraiñ; baña, olako batean, Jentil bati aitu omen zion nola algaraz esaten zuan:

Ja, jaaaii...!

Balekia, artuko likenea:

Or-irtete, arto ereite;

or-erorte, gari ereite...

—Ez dakit zer esan, ere; tximistak asko jotzen ba-gaituzte, naparrak geiago oraindik... Beti dabiltza guri kalte nundik egingo... Denok Euskera baten semeak izan arren, alkarren etsai gera... Enpaundiko Erramun Iramendi gañean urkatu zutela, ahaztu al zaizute?

—Ta, auzoko Kata-gorri, ere, naparra al da, ba...?

—Zergatik diozu ori?

—Lehengo egunean ederrak eman zizkidan, ta, urrungoan aizkoraz jo ta ilko nindula, esan zidan, aitatxo... Nik bildur diot...!

—Egingo ziñun okerren bat...

—Bai zera...! Aldameneko belardian jolasean nebillelako zan...

—Orregatik...?

—Ta neri, ere, juandan egunean, aita ta biok suge-kumeak giñala esan zidan. Ekion zion beste bategen.

—Zorioneko belardi orrek lanak eman bear dizkigu oraindio. Gure beiak larrera sartu dirala ta ez dirala, beti ba-degu zer edo zer... Aspalditxo onetan zer gertatzen zaion ez dakit; baiña asarre bizian darabilkigu. Askotan, ni ikustearekin bakarrik, sua dariola jartzen da... Bigun egiten ba-diot, sutsuago... Etzioat ba, dakiela beintzat, nik kalterik egiñ... (Auek danak Otxoa berekasa esaten ari da). Zuek egin ez ba-diozute zer edo zer...? Okerkeriren bat...?

—Nik, ez!

—Ezta nik, ere!

—Nik, ere, ez!

Ukatze onetan alkar zetozten ume guziak: eurak etzioten Kata-gorri-ri kalterik egiñ.

tik joaz, lapurrek bezela... Baiña, Zaragoza-ko gora-berak egin da gure artean sartu zanean...

—Ze...? Txakurre bota al-zioten euskaldunak?

—Euskalerrian sartu zanean, Orreagako ballaran, an zeuzkan gureak zai, zorrak kobratzeko... Gu darostea zatitu zioten ta, Otsoko-k iges egin ba-zuen, ere, bere illoba Erroldan-ek bertan utzi behar izan zitun bere ezurrak...

—Odozik ordañetan! Ederki egiña. Nik ba-dakizkit Otsokoren bersoak...

—Kanta itzatzu, Mikel.

—Kantako det, ba:

Oihu bat aditua izan da  
Euskal mendien artetik.  
Eta etxeko jauna  
bere atearen aitzinian txutik  
idiki ditu belarriak  
eta erran du:  
Nor da or? Zer nai dute?  
ta bere nausiaren oñetan  
lo zegoan zakurra  
altxatu da ta karraziz  
Altabizkarren inguruak  
bete ditu...

\* \* \*

Umeak bere kantua amaitzearekin batera, dandand-otsa etxeko atean.

—Aurrera!

Ori esatearekin jeiki da Otxoa bere aulkitik ta ba-dijoa atariruntz.

Egia zan. Zeiñek eman dio oneri berri ori? Semenoren Olazagutira jua danik, zeñek esan dio? Gure artean konfiantzazko gizona degu au... Orre Otzoaren pentsakizunak.

—Larrea-koekin artu-emanak ba-ditugu, baiña zure gomutarik ez... Etzaitut gogoratzen...

—Ez da arritzeko asko gera ta Larrean. Aurrera geiago esagutuko nauzu.

—Tira, ez da itzeko garaia ta sutara gerturau zaitez, buztixamarra etorriko zera ta... Zuek, umeok lotara...

Une artan lo-gelatik amandrea agertu.

—Ama, umeak lotara itzatzu...

—Tira, umetxoak, jaun oneri agur esan ta lotara...

Umeak jeiki ta badijoaz.

—Agur, jauna. Ondo lo egiñ.

—Seme ederrak dituzu.

—Bi urte dira ama galdu zutela... Baiña berriketari utzi ta zer edo zer ekartzera nioa. Esne berorik nai...?

—Ez, ez det nai.

—Orduan, gaztai apur bat ekarriko dizut.

Ori esanakin batera jeiki ta unien lo-gelan sartu da; bertako kutxan bai ditu gazta ta ogia.

Biar berriz etorriko ba-nitz ez zenduke orrelako kunplimenturik nerekin eukiko —zion bere kolko-rako Bidezkarriak—; nor nai zen ba-ekik... Nere Jaunak ondo asko ordainduko zizkidak gaurko nere neke auek... Arriskuko lanak dituk auek... Ni emen izan naizela biar Lazkano-n jakingo ditek ta ortik iñori kalterik etortzekotan, datorkiola nere etsaiari ta ez



Une artan lo-gelatik amandrea krisallua eskuan duela.

—Gabon, jauna. Zure baimenakin lotaratzea nioa; azpalditik indarrak juanak ditut, urdalla daukat nolabait eta perlesia-aideak jo nindun orain bost urte; arrezkero ez det nere bururik bere onera ekarri...

—Bai, etxekoandrea, zoaz kunplimenturik gabe. Nerekikoak zure semeak bete ditu oparo.

—Gabon, ba.

-^—Gabori, gabon. \

\* \* \*

Bidazkaria bakarrik gelditu da sukaldean, Otxoak zaldiari jaten ematen dion artean. Egia esan, zaldia janda zegoan lehenago, ere... Ixil-unea. Aldameneko lo-gelan Otxoaren lau umeak, biñaka oe bakoitzean, aingeruekin amesetan. Bidezkarria, bere aulkitik jekiki, ta lo-gelan sudurra sartzen du:

—Ementxe daude laurak. Lo. Ederki zio...

Solairutik zintzilik zeuden saiaski ta urdaien itzallak dantzan zebiltzen suaren argira. Bidezkarria kopetillun bere aulkian. Kanpoan euria ta kaskabitoa Ifar-aize miña. Illuna.

Otxoa ikullutik dator:

—Lotaratu nai dezunean mandioan daukagu gela ordeko bat. Erakutziko dizut nai dezunean.

—Banoa, bai; nekatu xamar ere, ba nago ta...

Mandioko atetik gora dijoaz.

Otxoa jetxi danean, sukaldeko sutautzak pillotu ditu sua estaltzeko. Ala dio bitartean:

Geldiro-geldiro irikitzen dijoa. Atal atzetik Bidezkariaren burua dager. Baztarrak begiratu ondoren sartzen da barrura ixil ta begirunez, anka-puntatan. Umien lo-gelara gerturatzen da. Beti anka-puntatan, beti ixil, beti begirunez...

—Lo dago gizarajo au. Nabillen ixil bada-ezpada, ere. Orduak aurrera dijoazkit. Onezkero Naparroan behar nun. Kata-gorri dala ta ezuala... Lagunak behar beharrezkoak ditut aurrera, ere, ta eman deioan poz ori... Onezkero gau-erdi aldera izango da; etortzeko garaia ba-du... Kanpoko atea irikiko diot...

Pentsa bezela egiten du.

Bitartean ikusi-aldi bat eman baztar guziaz etxe-koak lo zeudela jakiteko.

Mateo Txistuk etzituan bosteun metro erbien ondoren egingo, ta, or nun agertzen dan Kata-gorri:

—Or al-aiz, Axari...?

—Azpaldi ontan ire zai, Kata-gorri...?

—Esanak esan. Semeno, Jaunaren seme nagosiena, an dezute Olazaguti inguruan. Urdiango etxezulara juana dek Periz-ekin. Ori jakiteak ez dik iri kalterik egingo. Ontzako ederrik jasoko dek... Nereztzako, ere, zer edo zer ekarriko al-oan... Ekatzak orain esandakotik apur bat...

—Tok poltsa... Baña, orain zati bat eta gero beste...? Ez diat antzik ematen...

—Oraintxe ikusiko dituk nere asmoak...

Axari-ren eskutik poltsa artu ta sutokiko suarri atzean gordetzen du.

—Au neri eskeñitakoen erdia ere ez duk; palta diranat ik ereak kobratutakoan emanen dizkiak; haña, auek gaur emen behar nituan... Bestien erantzuna izango al diagu egunen batean; bitartean ekatzak

Parre tristea ezpaiñetan ta gorroto bizia Katagorriren begietan.

—Ire ezurrei agur egitera joango nauk beleak garbituko dituanean... Deabruatik ziñ dagit nere itxa beteko dedala! Ara nere argi-bidea!

Ta ori esanakin batera, naparrak emandako ezpata lurrera jaurti ta soiruan sartu du indar guziez... Ondoren, igesi dijoa ateari danbada eraginda.

\* \* \*

Kata-gorrik ateratako otsetara, Otxoa dator krisallua eskuetan.

—Zer ote zan ori...? Zertan ote dabill gure bidezkarria...?

Mandiora igo ta mandioko gela utzik. Bidezkarriaren arrastorik ez. Kanporako atea irikita.

—Alde egiñ digu... Orren azkar joan behar ote zuan...! ? Ez det, ba, nik lo-saio luzea egiñ oraindik... Goizaldea urrutian degu...

Eldu da sukaldera ta sukalde erdian ezpata bat lurrean sartuta zutik.

—Zer? Zer esan nai ote du onek?

Ezpata eskuetan artu ta krisalluen argira jartzen du.

—E! Napar ezpata! Tiebas-ko gazteluen ezaugarria du! Madarikatua! Naparra, alajaña, gure bidezkarria!! Ez al zuan izugarriren bat egingo...!

Ori pentzatserakin batera asten da Otxoa garra-xika:

—Mikel, Joxe, Matin, Joan!

—Zer? Umeak erantzuten diote barrutik.

—Or altzerate guziok...?

—Arren, utzidak zaldia. Jainkoaren izenean eskatzen diat! Azkar...!

—Jainkoari pakean utziok. I burutik eginda ago. Akelareren batera al oa Jainkoaren izenean, gauerdian ta zaldi-gañean...! Ja, ja, ja...! Ederki eman, ere, Albitxuko Jauna akelarrean...! Ori besterik ez genduke palta...! Ja, ja, ja...!

—Ezeidak miñik eman. Biotza erdibi zeukat lehenago, ere. Napar bat izan dek gure etxean ta Joan txikia arrapatuta igez egin zidak. Ibilli ari azkar. Arin, Kata-gorri ta naidekana emango diat ire zaldiaren truke...!

—Ni ere, zoratzeko asmao al dek? Zertarako dek zaldia orain...?

—Tira, Kata-gorri, berrtiketari utzi ta bizkor emaidak ire zaldia! Ze nai dek trukean...?

—Auek ez dituk iñora juateko garaiak!

—Ez ari biotz gogorrekoa izan. Aita baten miña erruki zak!

—Ez dala orretarako garaia ezan diat eta kito!

—Ire aurrean belaunikatzea nai al duk? Ara ni, Albitxuko jauna, ire oñetan... Zer nai dek geiago? Utzidak zaldia berandu baiño lehen!

Otxoaren ama ta semeak alkartu dira txoko batean. Dardaraz daude, sotinka negarrez... Kata-gorri geroz da zekenago.

Burua jaso ta okerka begiratuaz ala dio Otxoari:

—Noiztik dakik paperak ain ederki egiten...! Emen naparren bat izan dala jakingo duten bildur...? Señale dek ori...

—Zer?

Otxoak amorruez, ezpatari alduta ta belauniko oraindik.

*NAPARREN BERRIAK*

Amasei lagun datoz Otzaurteko atetik behera Zegamako bidean.

Aizkorri, narru-gorri dagoen aitza da. Gipuzkoarentzako muga Naparro ta Arabarekin.

Aizkorrik bere narru-gorritasuna galtzen du Otzaurte atean.

Atea da Orzaurte, bertan Aizkorri makurtu ta leuntzen dalako; ta ate orretatik pasatzen dira naparrak Guipuzkoara ta giputxak Naparrora...

Egoaldera dijoazan usoen pasea ere ba-da Otzaurte.

Otzaurtepean dago Zegama, sakon-sakonean ta sakon artan behera dijoaz gure amasei gizonok, geziak eskuetan ta ezpata motza gerrian, abarka-mantarrak oñetako ta kapusai illunak bizkarretik bera.

Garzi Semeneitz aurretik.

—Aurrera!

Esaten dan baño lehen eldu dieten amabi txerriei; bai beren garraxiak odoletan ito, ere... Urdanga aunditxoan zan bizkarrean eramateko...

Abata konturatzerako, ba-zijoazen maldan gora Otzaurteko atera, andik Naparrora pasatzeko...

1261-garren urte artan Zegamako Abata gelditu zan negua aurrean eta txerririk ez ikulluan...

Murdingoetan jan zituzten txerriok; baiña, pasadan, beste bei bat ere, aurrean artuta eraman omen zuten beurekin...

\* \* \*

Gertakizun au egitan gertatu zan 1261-eko urte artan.

Ori, ordea, uskeri bat zan Urte onetan eginda zeuzkatenekin konparatzeko.

Ona Panplonako paperetan daudenetatik ale batzuk:

Garzi Semeneitz, ta bere semeak, Inego Diaz, Yenegro Amurro ta beste lagun batzuekin batuta, oker aundiak egin zituzten urte artan.

Lau abere, mando bat ta lau bei arrapatu zizkioten Lopez Diaz de Unzetari; berrogei bei akabatu ta bei-zaia il zioten Diego Lopeiz-eri, errota ta bi etxe erre ondoren;

Pero Garzia-ri zortzi bei zortzi zekorrekkin arrapatu, palazioa ta upeltegia sei sagardo-upelekin erre zizkioten.

Bai Lope Peritz Ibar-koari ta bai Pere Abat-eri etxe ta upeltegiak erre zioten bakoitzari...

idazti ortatik artuak daude emen ondoren jartzen ditugun lerro auek:

"...queriendo descargar las conciencias de nuestros Predecesores, et nuestra, conoicemos et decimos en verdat, que el derecho de aver et heredar la propiedad de las Tierras de Ipuzcoa, et de Alava, et de Rioja, et de toda la otra tierra que ha seydo, et es, del Reino de Navarra, et lures sucessores, et quanto tiempo las ha hombre tenido embargadas, sostenidas contra Dios, et razon, et usurpandoles lur derecho."

Esanez bezala, Gipuzkoa, Araba ta Errioxa Napparoko Erregearen mendekoak zirela, ta Nappar-erreinoak bakarrik zuela Probintzi oienganako eskubide guziak...

Ta egia esan, giputxak, arabarrak eta errioxakoak danak zebiltzen Kastillakin buru bat eginda Napparoen kontra... ta ortik sortzen zitzaien napparai eraman-eziña ta gorrotoa...

\* \* \*

Baiña eldu diogun, berriz ere, gure 1329-garren urteko ariari.

Lazkanoko Garzi Lopiz, gure Semeno-ren aita, asarre bizian zebillen: Etxarrikoak etzioten pariak pagatu nai.

Pariak zer ziran?

Pakearen ordaiñak ziran pariak.

Pakeak beti izan oi du bere prezioa ta, Etxarrik Lazkanorekin pakea nai bazuan, ordaiñak ordaindu behar ta pariak pagatu...

Ekin diote basora berriz ere lazkaurrek; baiña, andik gorako txerri, larra-bei ta ardiak aurretik artu ta Lazkanora ekarri zituzten. Etzuten alperrikako biajerik egiñ...

Merinoa Apirillean etorri zan Etxarrira, ta Uztailaren zazpian alde egin zuan, San Fermin egunean...

Bitarteko gertakizunen berri Tiebasko gazteluan emango dizkigute. Goazen ara.



—Tresnak zorrozten ta konpontzen. Dabiltzala ondatzen dira ta noiz beinka errepasso bat eman bear daneri...

—Ta, ori zer da..?

—Au da sutegia. Su egiteko ta burnia guritzeko...

—Baita, baita...

—Lau parete ditu: bi kana luze ta kana bete zabal; alturea, berriz kanaterdikoa...

—Ta barruan zer du...?

—Barrua arrikoskorrez betetzen da ia goraiño, ta gaiñean, ikatz-irurie jartzen zaio, oiñ-erdi bat bezela lodian.

—Ikatz-iruria zer da...?

—Ikatz-autsa.

—Ta emen eskubitan daukan zulo au zer da...?

—Aska-txikia esan oi zaio zulo orreri ta oiñ-betekoa da bere neurria...

—Zertarako da...?

—Ura buztiñakin nahastuta eukitzeko; buztiñak loditu behar du ur ori...

—Ura buztiñakin...?

—Bai, ur ori erratz txiki batekin suari botatzen zaio, sua galdetzen asten danean, beren garrak tximiñitiek gora jua ez ditezen...

—Nora joan bear dute, ba...?

—Burnia guritzen dagoen tokira: barrura... Gaiñera, buztiñ-urakin busti ezker ez da ikatza arrotzen auspoaren aizeak ematen dionean...

—Auspo aundia da ori...!

—Bai, ala da. Burni aundia berotu nai danean, karga jartzen zaio gaiñean indar aundiagokin puts egiñ dezan...

ate lodikotea. Barruan gela aundi bat. Aurrean leio estu bat, aldemenetan arrizko eserlekuakin, leiotik kanpora begira egoteko...

Gela erdian egur osoko maia: iru kana luze ta kana bete zabal. Intxaur beltza ura, ere, beste aulki guziak bezela. Sendoak.

Ormetan gudarako tresnak: bai ezpata ta bai aizkora, bai azagai ta bai burnizko bola zaharrak esku-leku bateri lotuak... Etzan ezer palta. Ba-ziran burnizko izkutuak, gudatean norberen buruak gordetze-koak, ere.

Gela-erdian Tiebasko Jauna.

Bizar zuri oparoa okotzetik behera...

Begiak urdiñ...

Urteetan aurreratua edo gerla ondatua, ez nuke zihur esango.

Berarekin batean guk aurrerago esagutu genduan Axari berbera.

Alkar-izketan diardute:

—Iaioa aiz i benetan, Axari. Ta, arazo onek ondo irtengo digula, usten duk...?

—Irtzen ez...? Bai, orixe beintzat! Ezazu bildurrik izan, Jauna, gaur bertan emen izango duzu ta.

—Nere eskuetan ikusi arte... Zalatariak edonun zeudek eta, Axari...

—Edozer gauza jokatuko nuke gaua baiño lehen ekarri baietz.

—Ez nuke besterik nai... Aukera genduke diru mordoxka bat jasotzeko ta Lazkautarrai adarra jotzeko ere bai. Bildur bat diat eta auxe da: Erregaren ordezkaria etorriko ez ote dan auetako egunen batean... Gudariak behar dizkik gaztelarrakin darabi-

—Lagun ona.

—Beharrezkoa askotan, Jauna.

\* \* \*

Ixil-unea bien artean.

Jauna mai-buruan eseri da keskatsu. Axari, berriz, gira-ta-bira dabill batetik bestera gela guzia bere pausoz neurtzen dula. Tarteka leiora urbildu ta kanpora begiratzen du, albiste on baten zai balego bezala.

—Nere kezkek makur gaitzak dituk... Ezin nere burutik erak aldendu... Gongoan al dek nola dabilen Etxarriri su emen naiean...?

—Nor?

—Lazkanokoa...

—Ortan al zaude oraindik? Jauna, utziozu pakean Lazkanori!

—Etxarrik urtero eman oi ziona, aurten ukatu ziok... Ta eskerrak Merinoa bertan zegoanari, bestela ematen dio su... Baiña, Etxarri su-laba biurtu arte ez omen du lorik egingo... Maldizio ori botata omen du laz kautarrak... Guregana joko ba-lu, nik nere gudariak Erregeari bialdu ondoren...?

—Tira, tira. Oraintxe aspertu nauzu zure betiko lelo orrekin!

—Zer nai duk? Gauzak diran bezela ikusi behar dizkik gizonak ta arrixkuan begiak istea ez dek joku zuhurra... Gaiñera zer datorkigun ikusteko diagu adimena... Beste era batera jokatzera animalien jokabidea duk...

—Biotz-auleria ez-pada joko ori...?

—Asko al da? Ta nik eragiñak gutxi al dira? Nere nekeak aundiak izan diralako sari aundia sor zaie! Ta, egia esan, oraintxe itxaroteko astirik ez dut! Itxaroten asper-asper eginda nago. Garbi itz egingo diot. Erantzun garbia behar dut. Emateko usterik ez ba-du esan dezala argi ta garbi. Nere gariak eldu dira ta erak biltzeko garaia ere bai.

Gogo beltzak illundu dio arpegia Axari-ri.

Begietatik sua dariola jarri da:

—Ez al zidak bidean ostoporik jarriko...! Poliki legoke...! Orain arte beste baten mandioak betetzen jardun det; baiña, emendik aurrera, besteren mandioan neretzako bakarrik bilduko dut! Nai ba-du ta nai ezpadu! Ez al dut ondo merezia...? Aspertu naiz besterentzat egiten! Egin dezatela orain besteak neretzako! Laister behar dut bere alabaren eskua! Ez al dit ukatuko...!

Bat-batean ixildu da.

\* \* \*

Zurubian gora iñor dator.

Bai.

Tiebasko Jaunaren alaba da zurubian datorrena. Gazte liraña.

Zartzaroan sortutako frutua? Argizari kolorea du; eguzkiak jotze ez duen mazustaren kolorea.

Begi-urdiñ, aitaren antzera; baña, ille-matasak beltzak bere amarenen antzekoak. Egoaldekoa zuan ama: Tiebasera Tudelatik ekarria. Amaren ama mo-roartekoa ote zan zurrumurrua Tiebasko ingumarietan, gaztelura etxeoandre berria Tudelatik ekarri zutenean...

—Gaxoa...! On-ona da mutikoa... Baiña, nundik ekarri dezu...?

—Ba-det nik Lazkanoko Albitxu baserrian lagun bat... Bertako berri arengandik jakin izan oi dut... Berak utzi zidan semea esandakoen argibidetzat.

—Ta umea ekartzen, bere amak utzi al dizu...?

—Amarik ez du.

—Esaten nuan ba nik... Gizona izan bear orrela bere semea etxetik kanpora bialtzeko!

—Gurekin konfiantza duen señailea...

—Ez gutxi, ere, semea orrela bialtzeko...!

—Uste oso-osea du guregan... Jostallu polita izango dezu...

—Jostallua baiño geiagotzatat daukat nik...

—Gure eskontzan zure gona-barrena jasotzeko...?  
—algaraz.

—Ba-noa. Baztarrak erakutsi behar dizkiot, ia apurren bat alaitzen zaigun. Agur.

—Negarrari ematen ba-dio astindu zazu gogotik!  
Axari bakarrik gelditu da:

—Ez du nerekin ezkontzeko gogo berorik... Bo!  
Beretzako okerrago. Nai ta nai ez ba du nerekin ezkondu beariko. Aspalditik eskeiñi zidaten ta bere bi-tartez, gaztelua. Elburura iritxi naiz. Nere garaira el-du naiz ta ez det denbora alperrik galduko. Neri adarra jo...? Ez berak eta ez bere aitak; ezta inguru-an dabiltzan guziak bat eginda, ere...

Leiotik kanpora begira:

—Eginkizun aundia bete dut. Orra Lazkanoko semea atzemanda. Or dakarte ta nere epea bete da. Orain edo sekulan, ez!

Morroia zurubian goraka presaka; sartu da ge-lan:

—Olkik ordañeta, Semeno. Egizak orain parre...!  
Nere eskuetan erori aiz basakatuaren antzera... Ixilik  
al ago...? Eizak parre, gizon...! Bildur...?

—Askatu izkiak lokarriak eta ikusiko diagu nor  
zeiñen bildur dan.

—Lokarriak askatu...! Ja, jai...! Eroa naizela  
usten al duk...?

—Ona bildurra nork duan agertu. Ire bildur...!  
Noiz? Basoan basurdearen ondoren alkar jo gendu-  
nean...? Zergatik ez itzan orduan aiñ arro nere au-  
rrean jarri...? Testigurik gabe, biok bakarrik, au-  
rrez-aurre giñañean, zergatik iges egiñ oan basurdea  
nere eskuetan utzita? Nere geziaren aurrean dardar-  
ka ikusi induten basoko pagoek...!

—Makillaldia irabazten ari aiz!

—Egia beti mingarri! Esagun dek ire jatorria...

—Ixilik ago!

Ori esatearekin batera, amorru bizi baten, Axarik  
zaplastakoa ematen dio Semeno-ri arpegian.

—Lotua dagoanarekin gogorkeria...! Zaldizaiña  
izan aiz i beti...!

—Mingaña moztuko diat!

—Gizon ta zaldun ba itza, nere besoak askatu ta  
ezpata eskañiko eidakek. Izanari gizon, zaldun seku-  
la izango ez ba aiz ere! Emai dak ezpata ta goazen  
nai dekan tokira, bizarrik ba-dek...!

—Sare barruan arrapatu aut. Ez uzte tontoa  
naizenik i sare barrutik ateratzeko. Nere oinpean aut,  
Semenon!

—Gezurrak irten dik: ni ez nauk ire menpean,  
Jaunaren menpean, baiño.

—Biok bat gaituk!

—Orduan, a ze bikotea!

—Alperrik abill! Ez diat ezertxo sinisten!  
—Argibideak ba-dizkiat.  
—Alperrik abill!  
—Eorrentzako okerrago.

—Ire asmo gaiztoak ez dituk niregan Iortuko.

\* \* \*

Une artan Tiebasko Jauna, bere alaba Lore ta bi gudari datoz. Semeno ta Axari dauden gelara sartu ta Lore-ren aitak:

—Emen al zerate...? —agurtzen ditu.

—Bai, Jauna, oraintxen nintzan zuri berria emateko asmotan.

—Sartzen ikusi ditula ta, Lore etorri zait albistearekin. Ongi etorri, Semeno...

Semenok bere arpegia beste aldera jiratu ta bere kasa:

—Zenbat gezur...!

—Ez nizun esaten...? Ara gaur bertan nola ekarri duten Semeno preso. Sinisten al didazu orain, Jauna?

—Bai, ala duk, ala duk. Axari. Orain jua da, egitzek Lazkanoko goraberak. Zuek gudariok aska ezazute; Lazkanoko semea etzegok ondo lotuta. Askatu ondoren gelditu or atez beste aldetik zaindari.

Semenok askatuta ba-dijoaz gudariak ate ondora. Lore Semeno-ri begira-begira dago. Aitari onela dio-tza:

—Jaten emango al diot, gose ere izango da ta...

—Emaiozu bai, Lore.

Lore, mutill gazte arrekin kupituta dijoa jatekoren billa. Tiebaskoa ta Lazkanokoa aurrez-aurre.

rretan eroriko ba-giña...? Ez, ez. Obe izango da orain-  
goz barkatzea, ta bere trukian abere mordoxka bat  
etxeratzea...

Ta Semenori au diotza:

—Emendik alde egiteko asmorik ez artu, bizia  
galduko zenduke ta.

Besterik bage, atetik aurrera dijoa ate-ostean  
dauden gudamutillekin aopekotan jardun ondoren.

\* \* \*

Lore ta Semeno bakarrik gelditu dira.

Semeno eserita jaten. Lore zutik, bere aurrean,  
mutillari begira. Biotzbera da ta eztu anai-arteko  
burrukarik maite:

—Ona al dago...?

—Txerri goseak, ezkurra ames. Gose danentzat  
ogi gogorrik ez...

—Ala da, izan ere...

—Ta ogi gogorraren ordezt biguñia ekartzen ba-  
-dizute...? Ta ogi biguñakin gazta ta ardoa izan ez-  
kero...?

—Ez da ezer asko...

—Arrazoi dezu. Ori baño gauza oberik arkitu det  
nik emen...

—Zer izan da gauz ori...?

—Gorroto illun artean maitasun izpi baten ar-  
gia...

Lore-ren matrailezur beltxaranak gorritzten asi di-  
ra. Lotsa edo... Ixil-unea bien artean. Bitartean, Se-  
menok jan.

—Ezer geiagorik nai...?



—Ori ikusteko dago oraindik.  
—Guk alkarrekin zer ari geran aitak entzungo ba-lu...?  
—Nere aita erregearen ordezkorekin dago.  
—Zertara etorri da Erregearen ordezkoa...?  
—Gudari billa. Gaur eldu da gurera...  
—Onentxonak eramatera etorriko zan...?  
—Asmo orrekin da.  
—Ta, emen dabillen arro petral ori ez al du bialdu behar zure aitak...?  
—Ori ez du egundo bere aldamenetik kenduko...  
Orrelako gizonik ez omen da jaio oraindik...  
—Zertarako dan.  
—Nik, ere, orixe diot. Aspisugetako ederra ori...  
Nor nola salduko beti...  
—Kanpoan izan dala esan dit...  
—Bai.  
—Lazkanon izan dala.  
—Ala dio.  
—Zertara joan danik esango al didazu...?  
Lore zalantzan dago, zer egiñ ez dakilla. Aizke-  
nean dana esatea erabakitzen du.  
—Bai, esango dizut, etzait bere ajolik eta. Zure  
berri jakitera jua zan Lazkanora...  
—Eta an daukan lagunak ni Olazagutin nintzala  
esan zion.  
—Nik aña ba-dakizu...  
—Ta lagun ori zein dan...?  
—Lazkau-mendiko Naparro-bidean dagon baserri  
zabal...  
—Izena?  
—Ez nizuke esango... Izena...? Izena...?  
—Atxubitetxe?

Axarikatetik barrura sartuta:

—Orrelakoak sinisten dituk...? Ja, ja, jai...! Ezari eroa izan...! Albitxu oso leiala dek...! Zeñentzako dan jakin behar, ze...

—Ago ixilik, betiko zaldi-zain ori...! Gizon baitza ez ukek ire lagunik galduko...!

—Ez diat arren laguntzaren beharrik geiago.

—Azpi-suge saltzallea...!

—Ni, ala Albitxuko agurea...?

—Biok!

—Itz egizak gaur! Nik moztuko diat iri biar mingaiñ zikiñ ori...!

\* \* \*

Tiebasko Jauna zetorren, asarre bizi baten, eskilleratan gora gudariak inguruan zitula. Semeno-ri amorruz:

—Aita arro baten seme artoa...! Lotu zazute.

Semeno lotutzen dute artean Axari-k onela diotza:

—Ori egin gizonak...! Abereak agindu ta gudariak prestau gure aurka...! Damutuko zaio!

—Ori, ori, Axari...!

—Ori, ori...? Zuri irrika ta iruzur egitea da ori, jauna, zu tentel bat baziñake bezela...

—Ni tentela...!? Datorrela lehen bai lehen! Emen sartu orduko, ire burua leiotik txintxilika ikusiko dik, Semeno! Biar goizean, aiek etortzerako, ik egin dituk ireak...! Tiebasko Jauna ez duk odolagatik ikaratzan dan emakumea...!

—Orrela jokatu behar degu, Jauna.

—Datorrela aurrera ta orrela jakingo degun zer nai duan.

•—Pralle oiek beti iñoren bizkarretik nola biziko... eurak lana egingo ba-luteke, beti besteen ematekoaren zai egon gabe... Nik ematekotan ba-daude, eseri leizke baztar batean lasai...

—Zergatik dituk pralleak ain gorroto...?

—Alper utsak diralako.

\* \* \*

Prallea ta morroia datoa. Pralleak kapusai luzea dakar, bere txano ta guzti, nekazarien antzera. Soka bat gerrian ta egurrezko gurutzea lepotik:

—Arratsalde on, Jainkoak.

—Baita zuri, ere. Zerk ekarri zaitu gurera?

—Ara, Jauna, nere zurekin egonbearrakin arrituko ziñan...?

—Bai, arritu naiz.

—Ara, ba... Ingumari auetan nebillen eskean...

—Betiko leloa. Lan egin zazute, alperrok, iñoren bizkarretik gizendu gabe!

—Axari, utzi akiok izketan, ezeren garbitasunik ateratze ote degun...

—Zurekin utzi beharko...!

—Segizu aurrera, prallea!

—Eskean nebillen bai, baiña noan arira... Zuen gazteluan sartu ta sukaldean esan didate biar goizeko alban bateren bat urkatzeko asmotan zaudetela.

—Alaxe da. Erantzuten dio Axari-k.

—Orrelakoetan ba ditut nik neure eginbeharrak...

jakin duk abereen ondoren gudariak bialtzen dizki-  
gula lazkaularrak...?

—Lazkanon nintzala jakin nuen Semeno nun za-  
nik. Arrapatuko nuela ba-nekian da, morroia utzi  
nuan txabola batean, urrengo goizean Lazkanokoari  
eskabidea egiteko, semea bizirik ikusi nai ba-zunan  
beintzat. Abere taldea, alegia, eskabide...

—Ta...?

—Ba, aiek egirik sekulan esaten ez duten, nik  
ba-da ez-bada ere, agintzen ba-zioten ta ez pazioten,  
inguru aietan gelditzeko esan nion morroiari, on-  
dorengo gertakizunen zai... Beiak agindu bai, baiña  
bitartean gudariak prantatu...

—Axari aiz benetan i...!

—Baztarretan lagunak izatea bezelakorik ez da...  
Orra denak errez asko egiñ...

—Orrelako bururik ez duk aspaldian beste bat  
jαιο...

—Ez da orrenbeste izango...

—Eorrek ere ba-dakik ori. Nik aiña agintzen duk  
gatzeluan. Ausardia ba-duk nai beste...

—Ez da orrenbeste izango...

—Iri zor dizkiat makiña bat gauza...

—Ala ere, ez didazu alabarik emango...? Zer  
geiago nai duzu...?

—Lore ez duk ire zale...

—Arren baiezkorik ez dut nik behar; zurea nai  
dut nik. Zuregatik egin ditudanak egiñ, jaso dituda-  
nak jaso ta uskeri au ukatuko al didazu...? Zure  
baiezko ori noiz entzungo dute nere belarriak'...?

—Loren biotzik behartzerik ez dut nai. Ire zale  
ez duk bein ere agertu; ta orain gutxiako oraindik...

diot; nere aurretik bota dut... Berotuta nengoan ta une artan ez nekian zer egiten nuanik ere... Gaxoa... Noan bere billa...

\* \* \*

Tiebasko Jauna bere alabaren billa dijoan artean, goazen gu gazteluko kartzelara. Burnizko ziriekkin egindako atea du kartzelak. Orra or ate-ondoan kartzelzaiña, aldamenean krisallua duela. Argi nabarra, krisalluaren argi motela. Ez da eze asko emen ikusten...

A, bai; zer edo zer bai.

Atearen ziri artetik prallea ta Semeno prallearen aurrean belauniko bere pekatuen aitormena egiten, zaindariak, dagoen tokitik ez ditu ikusten.

Baña, zertan ari da prallea?

Eskuak askatu diozka Semeno-ri. Orain, berriz, gonak jaso ta gorputzean loturik zekarren soka luze bat atera du ta Semenoren ondoan gorde.

Jeikita atera dator:

—Tira, gizon, atea iriki eidazu...!

Kartzelzaiña, krisallua artu ta, urbiltzen zaio.

—Egiñ al dezute...?

—Onek egin ditu egiteko ziranak.

—Biar goizean urkatuko omen dute...

—Gizarajoa...

Atea iriki ta irten du pralleak.

Kartzelazaña, krisallua eskuan, atea izten ari dala, eldu dio pralleak atzetik ta bere belauna bizkar-ezurtean sartzen diola, etzan du lurrean aoz-gora.

Semeno dator arin-aringa pralleari laguntzera ta bien artean lotu dute. Artean, krisallua lurrera erori da, ta argia itzaldtu.

Axari-k ez du lotutako gizona askatuta ikusteko astirik artu. Zurubian dijoa garraxika:

—Jauna! Jauna! Jauna...!

—Zer duk...?

—Madarikatu alenak...! Inpernuak eramango al ditu pralle guziak bizi-bizirik... Gudariak azkar...! Zaldiak prantatu...!

—Baiña, zer duk...?

—Iges egin dutela biak...!

—Nola...?

—Kartzelzaiña or dator... Berak argituko dizu nola izan dan... Ni ba noa aien ondoren... Ez dute ez alde egingo...!

Axari eskilleretan behera gudariekin batera, zaldien billa.

Jaunak kartzelazañari:

—Zer gertatu da...?

Zaindariak ikaraz:

—Iges egin digutela biak...

—Orrenbeste ba-nekien...

—Presoa aitortu ondoren, irtendu pralleak ta atea ixtera nijoala, eldu dit ta bien artean lotu naute...

—Zergatik ez duk garraxirik egiñ?

—Aoa estaltzen zian eskuakin. Nik ortzaka ekin diot atzaparretan, baiña alperrikakoa izan da; ez du eskurik nere aotik kendu... Barruan utzi naute lotuta... Gero leiotik alde egin dute...

—Ederra egin diagu...! Axari-k arrapatuko al dizkik... Lore dala ta eztala (bere kasa ari da orain Jauna) ia zamurtu zitzaidan biotza... Oraingoan biak urkatuko dizkiat, prallea ta Xemenoa.

tuko idiak arrapatu ta bere Ernaniko "fortalezara" eraman zituan Alzagako Pero Martiniz-ek. Pero-kin batera zan lazkaular bat ere...

An juan zitzaien Mendietako Merinoa, idi billa, lareun ta irurogeita amar gudarikin Ernanira...

Alkarri ganadua arrapatzea eguneroko ogia zan. Burrukak zetozen berriz ere...

\* \* \*

Pakearen urratsak asi ta urte bete baiño lehen Gil Garzi de Yaniz, Mendietako napat Merinoa, Gipuzkoan zan Aritzederra-ra etorria giputxen Jutziziero jaunaren laguntzaren billa, lazkaularrak Burunda ballarako ganadua arrapatu ondoren Ona torrea erre zutelako.

Ordurako Panplonako Merinoa okerra eginda zegoan lazkaularren kaltean.

Ez oker txikia egin, ere...

Lazkauoen seme Semeno Olazagutin zebillela jakin zuan Merinoak salatarien bidetik ta bere billa juan ta arrapatu zuan Per Iñigiz de Sartze-rekin batera.

Per Iñigiz ill eta bere gorputza arplatik zintzilik utzi zuan Etxarri-Aranaz-en. Semeno, berriz Tiebas-ko gatzelura eraman zuan preso.

Etzan orrenbesterekin konformatu gure Merinoa ta, Aralar mendian zehar, Azkaratera abiatu zan Semeno-ren osaba Martin Garziaitz bertan zegoala salatu ziotenean...

Barrunta izenekin esagutzen zituzten salatariak, ta barruntak zituan Merinoak nun-nai.

Larrearen ondore etorri zitzaion Berastegiko fortalezari txanda... ta gero etorriko zitzaion Lazkanori, ere, berea. Baiña ez ditzegun etorkizunak aurreratu ta goazen Lazkanoko gaztelura Semeno arrapatuta geroko gertakizunak ikustera. . . . .



—Ez ari gaurko egunean iñokin fiatu... Norberan errañoakin bildurtzekoa duk...

—Añ zitzoa oan.,!

—Zintzotasunak orain ikusten dituk... "Juan Zuri" ditek orrelakoek izena, "Juan Zuri"... Aurretik, zurikeria ta atzetik...

—Besteren bat ba-litz... Baiña zein izango ta ori...!

—Besteak bai ta ori zergatik ez?

—Maiburukoak bere epaia eman arte ez diat sinisten ezer...

—Sinistu beharko dek... Egi orretarako argibi-deak ba-dizkitek maiburukoak...

—Ez diat ba, ala ere, ezertxo sinisten.

—Jaunak ere ez dik sinistu nai; ezin ditekela ziok... Baiña egia gertatuko ba-litz, bere eskuz urkatuko omen likek...

—Otxoa-ri gaizki nai dionen bat zebillek or, gizon ori ondatu naiean... Bere ausokoen aspaldiko burrukak gogoan zeuzkeat eta ez nauk geiegi fiatzen...

—Ixilik ago. Pauso otsak dituk. Jauna zetorrek maiburukoekin.

\* \* \*

Morroiak esan bezela Garzi Lupiz dator epaikari, guda-mutill ta aideko talde luze batekin...

Gela zabala izan arren ondotxo bete dute danon artean, burua besterik ez zan ikusten.

—Jaunak, ba dakizute zer arazo dakargun esku-arteant: Semeno preso ta Per Iñigiz urkatua... Nola ta nundik jakin dute naparrak berri ori...! Errudun gertatzen dana, berak aitortu du bere errua... Auzia-

—Erakutzi maiburukoai onen etxean zer billatu degun. —Esaten die.

Poltsa-dirua erakusten du gudari batek esanaz:

—Ara, Albitxuko su-arri azpian arkitu degu.

Epaikariak alkarri begira aopekotan ta jendetza guzia arri ta zur egiñik.

Otxoa, berriz, argizaria bezin zuri:

—Arazo onetan eskuak garbi ditudala Jainkoak daki.

—Utzi Jainkoari bakean! Erantzun dio bizi Garzi Lupiz-ek.

—Jauna, serbitzari zintzoa izan nauzu beti ta salatzalle bezela orain agertzeak ematen dit biotzean miñ.

—Ez da norbera iñor norberen burua garbitzeko. Zure mintzoetan ez da egirik agertzen iñundik. Egia beste alde batetik agertzen zaigu...

Otxoak bere burua makurtzen du miñaren-miñez. Mutututa gelditu da.

Ixilik.

—Alkarrekin itunik egiñ al zenduten naparrak eta biok?

Otxoak erantzunik ez.

Ixilik.

—Alkarri argibiderik eman...?

Otxoak enrantzunik ez.

Ixilik.

—Ez al dezu erantzunik...? Otxoa Albitxuko, erantzun nere galderari!

—Aita baten biotz urratuari zirika zabiltz...! Erruki gabe... Zure biotzaren samiña nere biotzean daramat: zure semea Tiebas-en ba-dago, nerea nun

Aspalditik nagokio begira ta Otxoaren etsai agertu da garbi asko...

Beste maiko batek:

—Otxoaren semeak ere argibide litzakela auzi onetan iruditzen zait.

—Dakartela zaharrena!

Gudari batek Mikel dakarre eskutik elduta. Aita ikustean negarrez zotinka asten da.

—Ez ari izutu ta nere galdera guziai argi erantzun: zure aitak inor etxean artu al zuan lehengo gabea...?

Mikel zotinka:

—Kontu kontari ari zitzaigula, gizon bat sartu zan etxean...

—Geiago, zer...?

Gu lotara bialdu giñuzen aitak.

—Ta gero...?

—Gabea aitak esnatu giñuzen Joan arrapatu zutela ta...

—Ta, oitik jeiki ziñan..?

—Bai, Jauna, ta zaldia ilda ikusi nuan ikulluan ta gero aitak Katagorriri ots egin zion...

—Zertarako?

—Zaldi bat eskatu zion Katagorriri...

—Katagorri eman al zion zaldirik?

—Etzion eman nai ta orregaitik biak burrukan asteko jarri ziran...

—Itzik ba-du Katagorrik? Zer diozu, Katagorri...?

—Egi utsak dirala den-denak, umeak dion bezela. Susmoa artuta nengoan ta Otxoa itxurak egiten ari zala igarri nion.

—Zer diozu. Otxoa?

—Agur, Jauna.

—Agur, agur...

\* \* \*

Morroia dator eskilleratan gora arin-korrika:

—Jauna, Garziaitz dator arnas-estuka; zaldia, ber-  
rриз, pítza dariola lertu bearrean dakar...

—Datorrela beriala gora.

Ba-dijoa morroia.

—Ze berri ote dakar...? Ezer onik egiñ ote du...?  
Larriegi dator gauz onik izateko...

Gogoeta larriak ditu berekasa Lazkanoko Jaunak.

Bitartean eldu da Garziaitz.

—Zer egin dek...? Gauz onik bai...?

—Gauza asko...

—Esan esan...

—Tiebas gañeko pagadirarte jua nintzan zal-  
dian...

—Ta, gero...?

—Utzi an bi zaldiak arbola-gerri bateri lotuta ta  
pralle jantzi nitzan...

—ta...?

—Gaztelura sartu ere bai...

—Semeno-rik ikusi...?

—Semeno iltzeko asmoa etzuten ba...!?

—Eta, zer...?

—Semeno-ri eriotzako orduan laguntzeko aitz-  
kiarekin, arren kartzelara eraman ninduen...

—Ta fiatu ziran...?

—Pralle-antza oso-osoa nuen bizar ta guzi...

—Aurrera!

—Naparroko Erregeak Tiebasko zaldunak gudarako eskatu ditula ere, esan dit Semeno-k. Orain genezake era ona Tiebaskoak burrukatzeko...

—Ilko ote dute...?

—Ez ba jakin... Bera ezetzean zegoan, baiña oraiñ... Zeñek daki...?

—Ilko ez ba-luteke...? Ta urkatzen ba-dute...?

—Zaldun bikañenak Erregeak eramanak ditu onezkero ta ezin genezake bildur aundirik euki... Jende askorik gabe naikoak giñake, Semeno barruan daukagula jakinda batez ere... Zeiñek ez luke arengatik bizia arriskuan jarriko...?

—Ba-da jarri artean bere bizia Semeno-gatik arriskuan jarriko ez lukena ere...

—Saltzallea...?

•—Nor dan ba-neki...

—Tiebasen ba-dakite nor dan salataria...

—Jakin behar...

—Baita Semeno-k ere, ba-daki...

—Nor da...?

•—Sinistuko etzendukena...

—Otxoa...?

—Berbera.

—Ta nundik jakin du ori Semeno-k...?

—Emakumea beti ao-jario ta mingaiñ-luze...

—Tiebasko alaba...?

—Ezer gordetzen ez dakitenak... Neronek ikusi nuan Otxoaren semeerik gazteena bertan...

—Bai, ori berak ere aitortu du...

—Aitortu du...?

—Bai, naparrak semea lapurtu ziotela aitortu du Otxoak...

—Lapurtu...? Ze lapurketa, gero...?

Garzaiatzek maiburukoai:

—Zeiñ agertu da orain arte errudun...?

—Otxoa.

—Ze argibidez...?

—Axari da bat.

—Besterik...?

—Susmo batzuek ere ba-dira: diru-sakela su-arri azpian ta Tiebasko ezpata sukaldean... Beste berririk bai al dezu zuk...?

—Bai. Semeno-ren itza.

Otxoak:

—Arren ager zazu ni ez naizela.

—Zer...!?

—Egia agertzeko, mesedez...

—Ta, zer da emen egia...?

—Nik ez dutela emen iñor salatu.

—Zeiñek, ba, orduan...?

—Nik ez dakit zeïnek.

—Ik, ez, baiña nik bai: i aiz salatzailea. Etzegok besterik!

—Gezurra!

Semenoren aitak bizkor-bizkor:

—Ago ixilik, bestela mingaiña moztuko diat eta. Ona egia argi ta garbi azaldu. Proba geyagorik bear al ditugu?

Guziok batera:

—Ez!

—Biar gorputz izango aiz. Tiebasko pagadian urkatuko aut. Nere eskuakin urkatu ere... Ire lagunen aurrean... Nere amorrua zirikatzen zabilzatenok, nor naizen jakingo dezute laister... Ondo esan al det?

—Bai!

Mai-buruko ezkerreko juezak:

—Esaten nian nik iri, etzegola iñorekin fiatzerik...

—Ala esan beharko...

—Otxoa oker bidetik zebilela aspalditxoan esan zidaken Katagorrik...

—Ba, berarekin ere etzegok geiegi fiatzerik...

—Zergatik, ez...?

—Orrek bi arpegi zeuzkak...

—Nin etzioat bat besterik ikusten...

—Ez ari fiatu... Etzegok iñorekin fiatzerik...

—Ori sinisteko ez al dek oraiñ nik esan bearririk...?

—Or uzten dizkik Otxoak azitzeko umeak... Errudun danik ezin zaidak buruan sartu... Aiñ oan zintzoa ta jatorra...!

—Zintzoa ta jatorra...! Ikusita zeudek orren zintzotasunak noraiñoakoak ziran... Juan-zuri, besterik ez...!

—Emen, benetako Juan-zuri Katagorri dek...

—Irudipenak...

Adar-otsa aidean.

—Gure Jaunen asarreak bateren batek pagatuko ditu...

—Bai, al ba-du, Tiebaskoak astinduko ditu...

—Tiebas urrutixamar dago; bitartean etsaiak etzaizko paltako...

—Gañera etxe ona Tiebasko fortaleza...

—Errez defenditzekoa...

—Tiebas-en ezer egiten ez ba dute, Ona-ko torrea erreko omen dute Burundako ballaran...

—Burundako ballaran ganadua ere izango da, nola bei ala zaldi...

Adar-otsa berriro Lazkanoko ballaran.

**GORROTO ARTEKO MAITASUNA**

Axari erreta dabil:

—Zoratu zaigu gure nagusia... Lehenago Semeno litzeko bero-bero; orain, berriz berotasun guziak oztu... Lazkautarrak gaztelua arrapatuko ote dion bildur da... Bai, ba, gudaririk onenak juan zaizkigu Erregearen osteak asatzeko ta... Neretzat, obeto... Nere asmoak obeto ta errezago beteko ditut; baiña, aurretik, Semeno ilda ikusi nai dut. Lorek ditu erru guziak... Neretzako eskeiña zegoen ta, neretzako beharko du, gazteluakin batera...

Leiotik begira dago:

—Nere amets guziak lur-jotzeko arrixkuan dau-de: Lore Semenokin, Tiebas eta Lazkanok alkar artu, ta... ni, mendira...! Ez, Axari naizen artean! Lorea neretzako ta gaztelua ere bai! Nai ba dute ta nai ez badute !Orretarako bidea...? Edo zein bide izanen da on!



—Ara, Semeno: Loreren onagaitik barkatu dizut bizia... Ez du atsegiñik artu zu libro ikusi-arteko guzian...

—Neroni ere arrituta nauka...!

—Biotz garbikoa da...

—Gazte geienak bezela; gerora bihurri ta zabartzen zaigu biotz ori...

—Pake zale da...

—Alkarrekin bakeak egin behar gendukela esan dit. Zuk eta nik, bai, erantzun diot; baiña, gure gurasoak...?

—Zuen onagaitik balitz...?

Tiebasko Jaunaren biotzak bildurra du baztar batean kokoldurik; ez da bakarrik maitasuna jokoan dabillena. Gezurrik gabe esan genezake, une onetan, nola maitasunak^ ala bildurrak, biak darabilketela Tiebasko Jaunaren biotza...

Semenok eskua luzatu dio:

—Ara nere aldetik bakeak egiñak.

—Beste orrenbeste, neretik.

\* # \*

Axari sartu danean biak alkarri esku emanda ikusi ditu.

Legor ta ospiñ:

—Zer nai zenduan...?

—Bialdu albistea lazkanotarren bidera, Semeno onik dela; orrela pakearekiko bidean asi ditzagun...

—Bai!

Amorru biziak darama Axari.

—Gure asmoa, Semeno, lehen bai lehen jakin behar du zure aitak...

Semenok Joan besoetan jaso du. Umeari begira,  
Semenok bereartean:

—Orrelako aingerua dala bide saldu nautela...?!  
Gogorra dek gizonaren barrua...!

—Eraman aitaxorengana...!

—Aitaxo...? Bai, bai, ekarriko degu aitaxo...

—Eraman aitaxorengana...!

—Baietz...! Bitartean gurekin bizi izango zera;  
ez da ala, Lore...?

—Orixe baietz!

—Alkarrekin izateko bagiña...?

—Nere aita onek naiko balu...?

—Ba dakizu, Lore, beste bateri eskeiña zaudela.

—Axariri...! Beiñ ere maite izan ez dedan gizonari...!

—Lore...!

—Beiñ ere neretzako maitasunik izan ez duen  
gizonari...!

—Lore...!

—Ez det gizon orren betirako mirabe izan nai...!

—Lore...!

—Ez, aita, ez...! Gaiñera pake iraunkorra egite-  
ko aukera oraintxen daukagu.... Ez al da orrela, Se-  
meno...?

—Bai, orainarteko baiño lokarri sendoagoekin  
lotu beharko degu bakea iraunkorra izango bada...

—Oiek denak egiak izan arren, nik oraiñ nere  
itza bete beharrean nago. Itza emana daukat eta itz  
ori beteko det...

Bere alaba biotzetik maite izan arren, oitura za-  
harretara jarrita zegoan Tiebasko Jauna. Gaztelue-  
tan, berriz, biotz eta gorputzen jabe Jauna zan...

—Aitatxo...? Aitatxo...? Etorriko da, bai... Etorriko da...

—Nik etxera nai det...! Aitarengana...!

—Bai, bai, kutuntxoa... Juango gera... Bai... Bilo eginda joango gera...

Morroï bat sartu da:

—Etxekoandrea, arritzekoa da lazkanotarrak egiten ari dirana...!

—Zer?

—Goiko pagadiko zugaitz batetik soka jarri dute txintxilik...

—Zertarako?

—Bateren bat urkatzeko...

Lorek Joan estutzen du bularrean:

—Gaixoa, oraintxen geldituko zera berriro umezurtz...!

\* \* \*

Lorek etzuan aizkeneko itza esateko astirik izan. Ateak irikita, Axari ta gudari taldea sartu da, Semeno ta jauna erdian arturik. Lotuta dakarzte biak. Beren aoak amantarrez estalita:

—Ara, Lore, nere asmo guziak betetzera nijoa. Nai badezu ta nai ezpadezu!

—Zoaz nere aurretik, aspisuge madarikatu ori! Txistua bota dio Lorek arpegira.

Axarik matrallekoa eman dio ordañetan:

—Ez dezu eskapatzerik! Nerea izanen zaitut! Nai ba dezu ta nai ezpadezu!

—Zurea, ez!

—Nerea, bai! Lazkanotarrak burruka aстера dijoaz. Euren gezi batek ilko du zure aita. Ni, bere

Guziak, erne.  
Aoa legor. Txisturik ez ezpañetan...  
Burruka-aurreko bakea; galerna aurreko barea:  
gudariak burrukarako arnas-artzea...

\* \* \*

Semenoren gorputza kendu dute torretik.  
Gazteluko atea iriki ta mando bat bota dute mendira. Pagadira dator. Mandogañean Semenoren gorputz illa...

Bat-batean... orrua, garraxia... ekaitza sortu da pagadian...

Burruka asita dago.

Ekiñean ari dira kanpotik barrura ta barrutik kanpora... Kanpotik dabiltzanak ugariagoak dira; baiña barrukoak segurutik dabilta...

Illunak ixildu ditu arma-otsak.

Lazkautarrak pagadira bildu dira berriz ere...

Gau-erdia.

Ez da oraindik, ortz-garbi onetan, illargiri agertu. Iruñako bidetik bai zaldizko ta bai oñezkoak eldu dira ixilik gau ixillean. Ixillago ibiltzeko zaldiak beuren azkazalak amantarrez lotuta dakarzte...

Ixilik etorri ta ixilik sartu dira gazteluan.

—Jauna, gazteluko atea iriki dituzte.

—Zertarako...?

—Gudariak sartzen ari dira barrura...

—Ta, oraiñ arte zertan egon zerate...?!

—Ez ditugu ez ikusi ta ez entzun atea irikita ikusi ditugunean baiño...

Egia zan.

Ta eziñ galazi.

Sua, gorrotoa, samiña ta behazuna zerioten eten-  
gabeko jarioan...

\* \* \*

Bigaramonean illetak ziran Lazkauko Fortalezan.

Semenoren gorputz illa salaren erdian; aita-amak  
aurrean; anaiarrebak aldamanetan; aide ta lagunak  
inguru guzian...

Bertsotan aitak.

Bertsotan amak.

Irakiten, aitak

Samiñak baretutako mintzotan, amak:

"Semea nuen,  
semea nuen  
nere odolez sortua.  
Nere bularrez,  
nere bularrez  
eder-eder indartua."  
"Egarri biziz,  
egarri biziz  
bere begitan edaten.  
Gizon egiña,  
gizon egiña  
neure begiak ikusten...  
Gaur Naparrotik,  
gaur Naparrotik  
etxera dute ill-otza.  
Negar samiñez,  
negar samiñez  
gañezka daukat biotza.

*QD. NAVARRI EXPUGNAVERANT  
FORTALEZAM DE LAZCANO*

Illetak egiñak ziran.

Suaren keiak Naparroako zero urdiñean zabaldu zituan egoi-aizeak; baiña biotzetako sua etzan kearekin batera desegindu...

Bai zera...!

Sutautzaren babesean, sua bezela, indartzen zijoan naparren biotzetan gorrotoa. Asmo bakar bat zuten gogoan: lazkaularrak puskatu, txikitu, birrindu...

Ta asmo orrek eraginda...

Baiña orretan asi baiño leben histori onen xee-tasun batzuek aztertu ditzagun alkarrekin.

Bada Iruña Naparroko Erreinuaren "Camara de Comptos" bat. Bertan gordetzen ziran Erreinuko kon-

Ordukoak orduan, oraingoak oraingoan...  
 Bakea, bakea, bakea...  
 Pakearen izenean jasoko ditugu gure anai-arte  
 burrukarako banderak...  
 Arrazoiak...?  
 Semenoren eriotza alde batetik, Aranaz-Burunda  
 ballerako lapurreta ta eriotz... Gauz guzi oien oiña-  
 rrian zer dago...?  
 Jauntxokeria!  
 Orra korapilloa...!  
 "Nor Jainkoa bezela...?" Ori Aralarko San Mige-  
 lena da.  
 Oiek jua ziran betirako... Oiek alienazio utsak  
 dituzu... Gaur eguneko guda-zantzoa beste bat dezu:  
 "Nor ni bezelakoa...?"  
 "Nor "gu" bezelakoak...?"  
 Auek dira gaur egun euskaldunon arteko aliena-  
 zioak...! Irritzi oien banderapean bilduko gaituzte al-  
 karren arteko burruka amorratu batera...  
 Bakearen izenean...  
 Batasunaren izenean...  
 Errialdeko maitasun baten izenean...  
 Euskal-erriaren izenean...  
 —Ze burrukarako deitzen gaituzte...?  
 —Etsai-aurkako burrukarako!  
 —Nun dira gure etsai oiek...?  
 —Gure artean!  
 Orra euskaldun jauntxoek betiko alienazioa... Le-  
 nagokoak lenago bezela; oraingoak orain bezela...  
 —Gurekin ez dana, gure aurka dago!

\* \* \*

nios"). Onekin zijoanzen bere semea, Pedro de Olaytz ta Jakobo Migelin de Leyazme...

Makina orren soka ta zati guziak Panplonako "Navarrerria" auzotik ekarri zituzten.

Makina orrek bazuan burni luze aundi bat; lau mandoen gañean ekarri zuten lau mandazañek Martin de Eugiren ardurapean. 27 libra, bi sueldo ta diru bat kosta zan makina guzia.

Abenduaren 3-an sartu ziran lenengoz Seguran ta illebeta luzea pasa zuten makina ori gertatzen... Abenduaren 7-an, Lazkauko fortalezaren berri ematera, Miguel de Araquil bialdu zuten Seguratik Panplonara. Gaztelua ikusi zuten soldaduak ziotenez, fortaleza burrukatzeko, burnizko armadurak beharrezkoak ziran gudarientzat.

Azaroaren 22-an asi zan burruka. Urtea, berriz, 1330.

Burruka latza.

Gertaera guzien berri emateko, ba ziran Seguran bi notario napar ere, bata Salvador Garssia de Erro ta Martin Simenis de Panplona bestea...

Lazkautarren kontrako ekintza onen gastuak 2725 libras, bi sueldo ta zortzi diru izan ziran guzira...

\* \* \*

1331-gn urteko egun batean Garssia de Aguirre bialdu zuten Panplonara albiste au Gobernadoreari ematera:

"quod navarri expugnaverant fortalezan de Lazcano...":

naparrak, alegia, Lazkauko fortaleza burrukatu zutela...



## AKABERA

Asiera-asierako Borja ta Semeno alkarrizketan:  
—Zuk, Semeno, asarre bizian ekin didazu naparrakin bat eginda etorri naizelako...

—Bai...

—Zergatik, ordea...?

—Ez al dizut naiko garbi erakutsi gau onetan, gure kondaira guzian naparrakin etsai ibilli gerala...?!

—Baiña, zuek Kastillan aldekoak ziñazten...

—Naparren kontrakoak, orde...!

—Larrearra jua ziñaztenean lagun ere ibilli ziñazten, Semeno...

—Lagun...? Lagun...? Boo...

—Ni etorri naiz Kastillaren alde, zuen odolekoa naiz eta.

—Zer dala ta naparrakin bat egin da...?

—Bai, zuen aurka, Kastillakin bat egin nai ez dezutelako...